


Euskadiko langabezia tasa %7,1ean mantendu zen

Langabezia tasa EAEn

Ehunekoa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu duen datuen arabera, **2024. urtearen amaieran, EAEko langabezia tasa %7,1ean kokatu zen, aurreko hiruhilekoan bezala.** Hori horrela izanda, balio hori 2008ko urtearen amaieratik lortutako erregistro txikiena da, garai hartan enplegu osoko maila lortu baitzen.

Gaualdiek beste marka bat ezarri dute

Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko urtariletik abendura. Milakoak




Iturria: Eustat.

2024an zehar, EAEko hotel establezimenduetako gaualdiak %3,4 igo ziren 2023ko datu metatuarekin alderatuta. Hain zuzen ere, gaualdien kopurua zazpi milioi eta erdira hurbildu zen, eta hori da erregistrorik altuena datuak argitaratzen hasi zenetik.



Esportazioek behera egin zuten lehen hamaika hilabeteetan

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak
Urte bakoitzeko urtariletik azarora. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Azarora arte, atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %5,1 jaitsi ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zifra absolutuetan, urteko datu metatua aurreko bi urteetan lortutako 30.000 milioi euroen azpitik geratu zen.

Etxebizitzaren salmenta %11,0 igo zen azarora arte

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtariletik azarora



Iturria: INE.

Iazko lehen hamaika hilabeteetan, etxebizitzaren salerosketak %11,0 egin zuen gora, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, saldutako etxebizitzaren kopurua 21.000 unitatetik gorakoa izan zen, eta, 2022an izan ezik, 2007tik lortutako erregistrorik handiena da (25.794 etxebizitza), interes tasa gero eta txikiagoek lagunduta.